

## Mello 629 m. (Sopuerta)



Argazkia: Javi Urrutia.

Sopuertako (Merkadillo) haranaren mendebaldean eta Muskizen hegoaldean altxatzen den gailurra da Mello. Mendi handi eta leuna da, eta bere magalak, askotan baso ustiaketetarako erabili izan dira. Hala era Enkarterri eskualdeko naturgune interesgarria da eta gailurretik, sekulako ikuspegi apartak izango ditugu Bilbo Handi, portualdea eta Enkarterrietarantz ere bai.

Melloren hegoaldean Las Muñecas bezala ezagutzen den mendate famatua iragaten da. Handik abiatuko gara irteera honetan. Mendate hau, llsogana bezala ezagutzen zen ere bai antzina, eta Saldamandoko bi mendi-multzoak bereizten ditu: Alen hegoaldean eta Mellokoa iparraldean. XVII. mende arte Melludi bezala ezagutzen zen Mello. Eta XVIII. mende arte Melludo. Badirudi gero hitz honen eratorpena gertatu eta Mello hitza ezarri zela

### **HASIERAKO PUNTURA NOLA HELDU:**

Sopuertara heldu behar gara eta llsogana portuko goiko aldean parkinga ikusiko dugu.

### **INFORMAZIO TEKNIKOA:**

- **Luzeera:** 7,1 km.
- **Iraupena:** 3,5 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 400 m.
- **Zailtasun teknikoa:** baxua
- **Zailtasun fisikoa:** baxua .

**IBILBIDEAREN IRUDIAK:**

